

Barre edo negar

Azalpen konplexuak ematen dira sarri demokrazia eta diktaduraren arteko aldea esplikatzeko. Filosofia politikoak Aristoteles, Hobbes, Locke eta enparauei buruz hitz egingo dizu; zuzenbide adituak, zuzenbide estatuaren egitura erraldoi eta aspergarriaz zaizkizu mintzatuko. Azken asteotako gertakarien ondotik, ostera, demokrazia eta diktaduraren arteko ezberdintasun funtsezkoa umorea dela iruditzen zait. Diktaduran gauza guztiak dira serio eta hotsandikoak; demokrazian, aldiz, halako parranda etengabe bat bizi dugu, iji eta aja, irri eta algara. Nola ulertu, bestela, Bilduren aferaren eta Bin Ladenen hilketaren harira esandakoak? Jose Luisek aipatu zuen maiz egon dela bere buruari inozenteen panpina jartzekotan, eta uste dut nik ere paper-guraizeak hartuko ditudala ttakuna amaitu bezain pronto.

Dudarik gabe, Sortu eta Bilduren inguruan esan diren aldrebeskeria guztiak jasota genero groteskoaren obra gailur bat edukiko genuke. Guztien artean, ostera, batek egiten dit grazia gehien. Ezagun da euskal deituren luzera dela beren gauza nabarmenenetakoa. Belaustegi-goitia, Agirregomezkorta eta abar. Izen luzeetarako joera hori, bada, erakunde armatuetara igaro ei da, marka guztiak hautsiz: Etabatasunasozialistaabertzaleakaubherritarren zerrendaaukeraguztiak eehakdemokrazia 3 milioiaskatasunaan inicitivainternacionalistasortubilduyloquetoque. Hots, kolokialki, tertulia eta antzeko bakanaletan “ETA-Batasuna” edo “*los de siempre*” laburdurekin ezagun dena.

Baina, arestian aipatu bezala, esperpento honen mailakoa izan dira, halaber, Bin Ladeni buruz esandako ugari. Ohartuko zineten nola kontatu ziguten Pakistan iparraldeko “luxuzko fortin” batean bizi zela Osama. Eta jarraian

MARC CAMPA



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

gotorlekuaren deskribapena eskaintzen ziguten: hiru metro lodi eta bost metro garai ziren hormak, alanbre ziztadunak, bi segurtasun-ate, kanporako leihorik ez, telefono eta Internetik ez. Bietako bat, edo donostiar ofizial ororen gisara pijo hutsa naiz, edo ez dut luxuaz tutik ere entenditzen.

Osama zaharraren baratza baitzirudien hark gehiago. Kazetariren bati aditu nion, luxuaren teoria indartze aldera, zinema areto bat ere bazegoela etxetik metro eskasera. Ezin izan nuen nire burua bridatu. Megaupload eta Megavideo ezean, zinemara joango al zen Bin Laden? *Avatar* ikusiko al zuen 3D betaurrekoekin? Palomitak jaten al zituen? Marrantahots etengabeak egiten dituzten agure gogai-karri horietako bat izango ote zen? Edo ondokoari filmean gertatuko denaren berri ematen dioten zapuztaile horietakoa? Edo “liburua hobea da” esaten dutenetakoa? Zentzatgarren ilara izango zuen gogokoen? Turbana kenduko al zuen atzekoari enbarazurik ez egiteko? Ze aurpegi jarri ote zuen *The Hurt Locker* (*En tierra hostil/Démineurs*) filmaren trailerra ikustean?

Izan ere, hain ongi pintatu digute Abbottabad delakoa ezen nire buruari galdetzen baitiot ea filmak azpitoluekin botatzen dituzten, eta behin eskatzen hasita, goizeko emanaldiak ere egiten dituzten. Deskuidioan ikuslearen eguna ere badute. *Marina D’Or* hondoratu zenetik oporraldietan nora jo

jakin gabe ibili naiz, eta luxuak luxu, akaso *Geronimo’s Resort* alternatiba egokia izan daitekeela pentsatzen hasia naiz. Kantak durundi egiten dit buruan behin eta berriro: “Ez al duzu Pakistan aldera kafe bat hartzera joateko gogorik?” Paper-guraizeak alde batera utziko ditut momentuz. Maltaxta gurgildunari begiratu diot. Egongo al da Abbottabadeko *Lonely Plane*ak? ■

Jose Luisek aipatu zuen maiz egon dela
bere buruari inozenteen panpina
jartzekotan, eta uste dut nik ere
paper-guraizeak hartuko ditudala
ttakuna amaitu bezain pronto